

2. Merkatuaren segmentazioa

Gure bezeroak aho hortzen osasuneko profesionalak izango dira, zeintzuek diagnostikoak eta tratamenduak hobetzeko teknologia erabiliko duten. Haiek produktua zuzenean beharrezkoa izango duten pazienteei eskainiko diete. Talde hauek bruxismoa detektatzeko eta prebenitzeko eskaintzen dugun soluzio berritzailetik onura zuzena ateratzen dute, eta hainbat kategoriatan banatzen dira, bakoitza premia eta ezaugarri espezifikoekin.

Bezeroen segmentazioa

Gure merkatua bi talde nagusitan banatuta dago:

- **Aho hortzen osasuneko profesionalak:**

Dentistak, ortodontistak eta aho hortzetako osasuneko beste profesionalak oinarritzko bezeroak dira gure proiektuan. Bruxismoa modu zehatz eta eraginkorragoan diagnostikatzen lagunduko dieten tresnak bilatzen ditu talde honek. Gure gailuari esker, datu zehatzak lortuko dituzte erabilitako indarrari buruz eta bruxismoa agertzen den eguneko une zehatzei buruz, diagnostikoaren zehaztasuna hobetuz eta paziente bakoitzaren tratamenduak egokitzeak aukera emanez.

- **Bruxismoak eragindako edo pairatzeko arriskuan dauden pertsonak:**

Talde hau adinaren, bizimoduaren eta arrisku faktoreen arabera segmentu desberdinetan banatzen da:

- **Haurrak eta nerabeak (6-19 urte):** haurren bruxismoaren prebalentzia %14-20 da eta nerabeena, berriz, %12-15 ohikoagoa izanez lotan daudenean. Kasu honetan, gailuan interesa izango dutenek gurasoak izango dira, eta bruxismoarekin lotutako etorkizuneko hortz arazoak saihesteko irtenbideak bilatzen dituzte. Haurren bruxismoa antzematea zaila da, batez ere loaldian gertatzen denean; horregatik, konponbide erosoak eta ez inbaditzaileak asko baloratzen dira. Talde hori bereziki sentikorra da prebentzioarekiko, hortzetako kalte goiztiarrak hortzen garapenari eragin baitiezaioke.
- **Helduak (20-50 urte):** adin hauen artean dagoen prebalentzia hurrengoak izango da; esnatuta daudenean %20-30koa eta lotan daudenean %8-15koa, estresarekin eta loaren nahasmenduekin lotuta. Lan faktoreen edo faktore pertsonalen ondorioz estres maila handia duten pertsonak dira. Buruko mina, ATM-an mina eta hortzetako higadura bezalako sintomak dituzte. Irtenbide praktiko, irisgarri eta eraginkorrak bilatzen dituzte estresa kudeatzeko eta hortz osasunaren kalte gehigarriak prebenitzeko. Ahoaren eta hortzen osasuna zaintzearen garrantziaz jabetuta daude, eta bizi kalitatea hobetuko duten irtenbide teknologikoak hartzeko prest daude.
- **Adineko pertsonak (60+ urte):** adineko pertsonen prebalentzia askoz txikiagoa da %3-5koa, hain zuzen ere. Normalean hortzak galtzeagatik edo protesiak erabiltzeagatik izaten da, nahiz eta nahasmendu neurologikoekin lotuta egon

daitekeen. Pertsona horiek erabiltzeko erraza, eroso eta beren osasun baldintzetara egokitua den irtenbidea behar dute. Hortzen eta protesien kalte gehigarriak prebenitzea da haien helburu nagusia, eta, horrez gain, haien aho osasunaren segimendua egitea, prozedura inbaditzailearik gabe. Adin hauetan bruxismoa detektatzea zaila izan daiteke, ziurrenik bruxismoa jada aurreratua egongo da. Baina izan daiteke bizitzaren momentu jakin horretan kausa batengatik bruxismoa piztea.

Bi talde nagusi bereiztu badugu ere gure produktuaren lehenengo hartzaileak klinikak izango dira. Hauek izango baitira gurekin harremanetan jarriko direnak eta produktua bere kliniketan eskaini eta aginduko dutenak. Hala ere, azkenengo bezeroak patologia hau pairatzen duten pazienteak dira.

Bezeroen ezaugarriak

Gure proiektuko bezeroek ezaugarri komun batzuk partekatzen dituzte segmentu bakoitzaren barruan. Hona hemen nagusiak:

- **Bruxismoak eragindako pertsonak:**
 - Osasunaren garrantziaren kontzientzia: talde honetako bezeroek kontzientzia handia dute osasuna zaintzearen garrantziaren inguruan, bereziki aho hortzetako osasunari dagokionez.
 - Estresaren ondorioekiko kezka: bruxismoa eragiten duten stres faktoreak identifikatzen eta erabiltzea lagunduko dieten irtenbideak bilatzen dituzte.
 - Konponbide irisgarri eta eraginkorrak bilatzea: eguneroko errutinetara egokitzen diren gailu eroso, diskretu eta erabiltzeko errazak nahiago dituzte.
- **Aho hortzen osasuneko profesionalak:**
 - Berrikuntzarekiko interesa: dentistek eta ortodontistek teknologia berriak nahi dituzte, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, denbora aurrezteko eta diagnostikoak hobetzeko.
 - Tresna zehatzen beharra: datu zehatzak eta denbora errealean emango dizkieten gailuak bilatzen dituzte, pazienteen tratamenduari buruzko erabaki informatuagoak hartu ahal izateko.

Merkatu mota eta segmentazioaren justifikazioa

Merkatu motari dagokionez, gure proiektua merkatu segmentatu batean dago. Hori ezaugarri eta behar espezifikoak dituzten bezero taldeak identifikatu ditugula esan nahi du, eta talde horietako bakoitzera egokitzen den irtenbide bat diseinatu dugula. Horri esker, produktu pertsonalizatuagoa eta eraginkorragoa eskaintzen dugu bezero mota bakoitzarentzat. Merkaturen segmentatua honako hau izango da:

- **Azken bezeroak:** bruxismoa duten edo arriskuan dauden pertsonak, adinaren eta osasun egoeraren arabera banatuta (haurrak, helduak eta adinekoak).
- **Aho hortzetako osasuneko profesionalak:** diagnostikoa errazteko eta tratamendua hobetzeko tresna baten bila ari diren dentistak eta ortodontistak.